

Aretxagazeta



Kepa Urrea

10 urte
kartzelan

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Eskoriatza Kirol Elkarte
goren gorenean /8

NI KAZETARI

Karmen Pagaldai
Polleruena dendakoa /9

LEINTZ GATZAGA

Hurretik: J.M. Makazaga
"Pequeño" /10

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 26
ITURRALDE: Mitarte, 18. 943 79 27 22

DOMEKA, 27
ITURRALDE: Mitarte, 18. 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basobko	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide Elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kiroletxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Sareko	943 71 26 56
Taxi Geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIAK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze-Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:00

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domekak: 11:30

MENDIOLA
Domekak: 12:30
GELLAO, GALARTZA, IZURIETA
Ez dago mezarik

OHARRAK

KEPA URRAREN OMENEZKO EKITALDIAK
Kepa Urrea preso aretxabaletarak 10 urte beteko ditu espetxean. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatuta ditu EPEH plataformak eta Aretxabaleto Askatasunak.

Urtarrilaren 25ean, Curtiseko (Galizia) kartzelara martxa egingo dute.

Urtarrilaren 29an, **KEPA 10 URTE ESPETXEAN** lelopean kartelada mugikorra egingo dute Mitarte plazatik hasita, 19:00etan.

Urtarrilaren 30ean, Etxaniz preso ohiak hitzaldia emango du Loramendi euskara elkartearen egoitzan arratsaldeko 19:00etan.

Otsailaren 1ean, Serial Numberrek eta Angerrek kontzertua eskainiko dute Ezkutu tabernan gaueko 23:00etatik aurrera.

Otsailaren 2an, eskualdeko manifestazioa egingo dute.

ZURE OHAR ETA DEIALDIAK ARETXAGAZETA-N

Zure bizilagunei, adiskideei, lankideei edo edonori ohar bat jakinarazi gura badiezu hemen duzu tarte egokia.
Deitu 943 798621 telefonora, edo idatzi mezu bat aretxagazeta@goiena.com helbidera.


LORAMENDIREN AGENDA

DEBAGUNeko EGUTEGIAK SALGAI LORAMENDIN
Loramendi Euskara Elkar-teak salgai jarri ditu Debaguneko urtero argazki zaharrekin osatuta egiten dituen egutegiak. Bat edo gehiago eskuratu nahi duenak jo dezala Durana kalean Loramendik duen egoitzara, 16:00etatik 20:00etara bitartean.
Egutegiak 2,40 euroren truke daude salgai (400 pezeta).

ORAINDELA 95URTEARETXABALETAN

Loramendi olerkaria jaio zeneko urteurrena

1907ko urtarrilaren 27an jaio zen, Bedoñako Mendibitzu baserrian, Joakin Arana Ezpeleta *Loramendi* olerkigile handia. Joakinek filosofia ikasketak egin ondoren apaiztegira jo zuen. Baina ez zen abade izatera inoiz heldu. Izendatu baino 23 egun lehenago hil zen, Donostian, 26 urterekin.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Ozmiñe”

Eguraldi edo haize hotza, hotz-hotza izan barik.

-Egualdixe ozmiñe, aize ozmiñe, jarri da. Otz aundi aura ez, baiñe otz.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Mainer Bastardo
22an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat amaren, aitaren eta Julenen partetik.




ESKORIATZA
Leire Cáceres
25ean, 3 urte. Zorionak zure gelako laguntxoaren partetik.



ARETXABALETA
Olatz Romeo
25ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Osane Ayastuy
26an. Urte askotarako! Zorionak, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mikel Zumalde
27an, 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA
Julita González
29an. Zorionik beroenak etxeko guzti-guztien partetik.



ARETXABALETA
Nagore Balanzategi
30ean, 3 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik eta besarkada handi bat.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma daganik !!!



Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua

Promotoreak baimendutako agentzia bakarra

Udalatx
Inmobiliaria

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behe-ekz.
ARRASATE



BASTER ALDE jatetxea

SASOIKO JAKIAK GIRO ONENEAN!

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Griperik hartu dozu aurten? Zelan egitten dutzezu aurre?



IMANOL ETXEBERRIA
Langillie




JESUSA SAEZ DE ZAITEGI
Jubilaue




KOLDO BELTRÁN DE HEREDIA
Langillie



MARI JOSE BOYERO
Langillie



ANDRES DURÁN
Jubilaue



ROSA LAJE
Jubilaue

Ez, aurten ondiokan ez dot hartu, baiñe gripe txarra dabillega esaten daue. Neuk be hartu izen dot, eta hola-kuetan pasau egin biher, etorten dan moduen fango da eta egun batzuetara.

Ez dot hartu ez gripeik ezta katarroik be. Ez naz katarrozaliek eta ez naz bakunau be egitten. Hazurrek dauket minddute nik, baiñe gripei dagokixonez ondo ibiltten naz.

Ez, ondiokan ez, baiñe normalien urtero hartzen dot, batzuetan birriten be bai. Medikuek esan eusten bakunau gure badot ez jatela txarto etorriko, baiñe ez naz ondiokan animau.

Ez, ondiokan behintzet ez dot hartu, eta normalien ez dot hartu izen. Harrapau ezkerro, analgesikuek hartu eta aurrera egin biher, umiekin ezin da-eta ohien geldi egon.

Ez, ez dot hartu. Aurten, dana dala, bakunau egin naz eta ondiokan ondo nabil. Katarruek be gutxi hartu izen dittut. Hala eta be, gripe asko dabillega entzuten da kalien.

Ez naz sekule bakunau, baiñe griperik be ez dot harra-petan. Gripe asko dabillega esaten daue, baiñe etxien be ez dau iñork hartu. Baba eta garbantzu asko jan biher die ez gaixoketako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOZ JOSITAKO KALEA Eroski denda dagoen kalea ez da luzea, baina autoz josita egoten da. Noranzko bakarria dauka, garaiektara doazen autoendako izan ezik, baina hara eta hona ibiltzen dira automobilak. Eroski jarri zenean ez dakit aparkaleketan pentsatu zuten; orain, ordea, arazo bihurtzen ari da, kamioiek ere ez baitaukate leku egokirik zamalanak egiteko. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

ASTEAN BEHIN /5

KIROLAK /6

Aste bukaera argazkitan

Aurreko aste bukaeran hainbat ekintza izan ziren herrian, tartean ikurrinari omenaldia.

Kepa Urrak 10 urte kartzelan

Hilaren 29an, hamar urte egingo ditu kartzelan Kepa Urrak. Hainbat ekintza antolatu dira.

Futbito txapelketa

Otsailaren 16tik aurrera futbito txapelketa jokatu da herrian. Urteroko hitzordua futbitozaileendako.

ASTEKODATUA

763

KILOMETRORA DAGO KEPA URRA

Etxetik urrunago ere egon da, baina Galizia puntarako bidea ere ez da gero leuna. Bi egun behar dira joan-etorria egiteko eta 40.000 pta inguruko kostua suposatzen du bidaiak bakoitzak.

BESTEKEESANA

“ Herriko komertzio, enpresa, taberna eta etxebizitza guztietan itzi da Goiena Komunikazio

Zerbitzuak atera berri duen *Gida 2002* gida komertziala. Baserrietara ostera, oraingoz behintzet ez da heldu beraz, norbaitek interesa baleuka ARETXAGAZETatik pasatu dadila eta bertan jaso ahal izango du.

Goienkaria eta ARETXAGAZETA ere auzoetako baserri guztietara bidaltzen ahalegintzen gara, baina gerta daiteke etxe batzuetara ez heltzea. Hori bada zure kasua, deitu ARETXAGAZETAra 943 798621 edo Goienara 943 792100 eta bertan jasoko dizkizute datuak. Edozein iradokizun, galdera, kexa edo berri dituzuela, zuen zerbitzura gaude, beraz beldur barik deitu eta erantzuna ematen saiatuko gara.

GOIENA

HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltran de Heredia



Eskubideak edo lotsagabekeria?

Herritar gisa, ondo dakizkigu zeintzuk diren gure eskubideak, eta bizi kalitatea hobetzeko beharrezkoa eta legezkoa dena laster asko eskatzen dugu instituzioetara. Orain aste pare bat, GOITBn eman zuten *Alkatearekin berbetan* saioan horren adibidea agertu zen. Kalean aurkitutako aretxabaletarrei alkateari zer eskatuko lieketen galdezkerakoan, batzuk herrian bizitzeaz pozik agertu ziren, eta beste batzuek euren kexak azaldu zituzten. Azken horietako batzuk euren atarte inguruko zikinkeria zela eta kexatu ziren. Lotu barik ibiltzen diren txakurren berri ere eman zuten, eta horiek uzten dituzten kakekin zerbaitegiteko eskatu zuten. Trafiko arazoak eta txarto aparkatutako autoak ere aipatu ziren. Arazo hauek guztiak, ordea, herritar gisa gure betebeharrak ez ditugulako betetzen sortzen dira.

Ume eta nagusiak patata fri-

jituen poltsa edo hutsik dagoen tabako paketea lurrera botatzen ikusten ohitu gara. Egunero ikusten ditugu txakurrak, lotu barik noski, jabea alboan dutela “zaiñdu” kartela duten lorategietara bidean bertan euren eginbeharrak egiteko. Etxetik 10 metrora ezin dugulako apartatu haserretzen gara, eta ondorioz espaloi gainean edo zerbabide erdian uzten dugu autoa. Horrekin, umedun aulkia-ekin edo gurgildun aulkian datozenei egiten diegu oztopo. Nor da honen guztia- ren erantzule?

Zikinkeriarik ez bagenu botako, ez litzateke ez kexan, ez gure atarte aurrean hainbeste erango.

Txakurrak lotuta erango balira eta eginbeharrak behar den lekuan egingo balituzte, lorategi eta kale bazterrek itxuroroso egongo liriateke. Etxetik 15-20 metrora aparkatzen saiatuko bagina, ez genuke arazorik izango zerbabide eta pasealeketan. Baina noski, gure eskubideak betebeharren aurretik daude, beraz... Udalak konpon ditzala arazo horiek guztiak.

“Gure eskubideak betebeharren aurretik daude, beraz... Udalak konpon ditzala arazo horiek guztiak”

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETA.
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Ekin lanari

Mozorroa prestatzen ibiliko zareteela uste dut. Badakizue aurten aratustekak otsaileko bigarren domekan ditugula, beraz, ia-ia gainean ditugu. Eta oraindik ezertan ekin barik? Ai, ai, ai... oraingoa ere harrapatu gaitu trenak. Ni harrapatu nauen arren, beste batzuk izugarritzko muntaia egiteko asmotan direla jakin dut. Lagun talde handi bat elkartu ei da, eta gehiago ez noa kontatzera, baina... zeozer potoloa egiteko asmoa dute.

Aratusteen aurretik, hala ere, Santa Ageda helduko zaigu, eta horrekin batera Santa Ageda mutilak. Horrenbeste tira-biren ondoren, azkenean aterako direla entzun dut, eta dagoeneko Ramon Erañarekin ari dira entseguetan. Alkatea, hala ere, ez dakit oso gustura dagoen. Ikusiko dugu nola portatzen diren. Espero dut ondo, bestela, akabo usadioekin.

Aurten ere Santa Ageda ikusi barik geldituko dena **Kepa Urra** izango da. Hamar urte egin ditu espetxean, eta hori dela eta, Coruña, Curtisera, hain zuzen ere, martxa antolatu da. Bidaia gogorra, baina Kepak, ez ikusi arren, sentituko du herritarren berotasuna.

Ea ba joan-etorria arazo barik egiten duten, eta Kepari besarkada bat denon partetik.

KULTURA/ Herritar ugari batu zen ikurrinari omenaldia egiteko, bai pleno aretoan bai plaza inguruan ere

Ikurrina protagonista izan zen ekintzaz betetako aste bukaeran



1977ko eta gaurko udalbatzek bat egin zuten osoko bilkuren aretoan.



Udaleko ez ohiko osoko bilkuraren ostean, Pedro Etxebarriarteunek, 1977an ikurrina legeztatu zenean zinegotzi zenak, plazaraino eroan zuen ikurrina. Han, omenaldi ekitaldixoa egin eta gero, Udaletxera ekarri zuen bueltan Josu Atxaga zinegotziak, eta balkoian jarri zuen.



Pailazoek umeen arreta osoa eskuratu zuten *Aupa Kintxo* ikuskizunarekin.



Hiru taldeko Dabid Gonzálezek, Jose Mari Sarasuak eta Oier Sarasuak eta Pilota Taldeko Mikel Uribebarriak eta Jesus Kotarbarriak pozik jaso zituzten euren sariak. Urtean egindako lanaren ordaina izan zen zapatuan jasotako saria. Aurrerantzean ere lanean jarraitzeko asmoa berretsi zuten.

LABUR

Aurtengo Santa Ageda mutilak entseguak egiten hasi dira, Udalaren babesik ez jaso arren

Joan den astean hasi ziren Santa Ageda mutilak entseguak egiten Iturrigorri frontoian, Ramon Eraña irakasle hartuta. Alkatearekin izandako tira-biren ostean, bai eskean bai dantzari ataratzeko asmoa agertu dute mutilek, nahiz eta Udalaren babesik

ez jaso. Egun gutxi gelditzen zaizkie entseguetarako, baina ondo aprobetxatu gura dituzte. Gehientsuenen esanetan, Santa Ageda ohitura errespetatu eta gehiegikeriarik egin barik ondo pasatzeko asmoa dute, nahiz eta suziri batzuk bota.

Danbor hotsak nagusi astelehenean

San Sebastian eguna domekan izan bazen ere, herriko ume eta gaztetxoek egubakoitzean eta astelehenean bete zuten herria danbor hotsez. Batzuek herriko plazan, eta beste batzuek euren eskoletan, denek eman zioten gozoz eta pozik danborrari.

Gaztemaniak CDan, bi aretxabaletar

Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratu berri duen 2001eko *Gaztemaniak* disko konpaktuan bi aretxabaletarren abestiak jaso dira, Igor San Juanen *Bat* eta Serial Number taldearen *Psicho Kaos urdina*. Diskoa hiru eurotan dago salgai.

Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

GIZARTEA/ Hamar urtean hainbat kartzelatan egon behar izan du, eta beste horrenbeste gose greba egin ditu

Kepa Urra kartzelaratu zutela hamar urte beteko dira 29an

MIRARI ALTUBE

Urtarrilaren 29an, martitzenean, hamar urte beteko ditu Kepa Urrak kartzelan. Hori dela eta, Coruñaiko Curtiseko kartzelara martxa antolatu du Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak aste bukaerarako, eta herrian ere hainbat ekintza egingo dira datozen egunetan.

Coruñaiko Curtisen beteko ditu hamar urte kartzelan Kepa Urra preso aretxabaletarrak, herritik 763 kilometrora. Hala ere, herri-tarrek elkartasuna eta maitasuna helaraziko diote.

HAINBAT KARTZELA

1992. urteko urtarrilaren 29an atxilotu zuten Kepa. Torturatu egin zuten eta bederatzi egun pasatu behar izan zituen Basurtoko ospitalean. Hamar urtean hainbat espetxetan egon da: Madrilgo Alcalan, Cadizeko Puerto II-n, Madrilgo Valdemoron, Basaurin eta Langraitzen. Eta, gaur egun, Galiziako Curtisen dago. Era berean, gose greba asko egin ditu Kepa Urrak; luzeena 1992an egin zuen, Puerton; 26 eguneko gose greba izan zen hura. Eta, azkena, Alcalan egon zenean, 15 eguneko.

HITZALDIA, KONTZERTUAK ETA AFARIA

Keparekin bat egin eta haren egoeraren berri herritarrei emateko, hainbat ekintza antolatu dituzte



Jose Mari Etxanizek, 21 urte kartzelan pasatu dituen preso ohiak, hitzaldia egingo du eguaztenean.

Aretxabaletako EPEH plataformak eta Askatasuna taldeak. Gaur, egubakoitza, esaterako, Curtisera martxa egingo dute. Ez da egongo aukerarik kartzelara sartzeko, baina aretxabaletarren elkartasuna adieraziko diote Kepari ekintza horrekin. Bestal-

de, martitzenean (hilak 29), kartelada mugikorra egingo da Mitarte plazan, arratsaldeko zazpitan. Eguaztenean, Jose Mari Etxanizek Bergarako preso ohiak hitzaldia egingo du udaletxe zaharrean, arratsaldeko zazpitan. Otsailaren 1ean (egubakoitza),

Anger, Vs eta Serial Number taldeen kontzertua izango da Ezkutu tabernan, gaueko hamaiketarik aurrera. Ekintzaz betetako astea bukatzeko, otsailaren 2an (zapatua), eskualdeko manifestazioa (20:00) eta afaria (21:30) izango dira herrian.

LABUR

Hasi dira ludoteka berria egokitzeko lanak

Gernika plazan dagoen etxebizitza baten azpian egokitu ko dute ludoteka. Aste honetan hasi ditu lanak Amaral enpresa eraikitzaileak. Egokitze lanek ia bederatzi milioi pezetako aurrekontua dute, eta maiatz ingururako bukatuta egotea espero da.

Urkulu ingurua garbitu dute Udaleko langileek

Udalari ez badagokio ere, urtero garbitzen dute Urkulu ingurua Udaleko langileek. Aurten ere, horretantxe ibili dira aste honetan, eta zikinkeria ugari batu dute urtegiaren bueltan; eta ikusgarrienak txapazko bidoiak izan dira. Garbitu beharrik egon ez dadin, ea ez dugun zikintzen.

Udaletxeko parkeko ezkiei adarrak moztu dizkiete

Udaletxe osteko lorategian dauden hainbat ezkiei adarrak moztu dizkiete pisua arintzeko. Izan ere, urte hasieran haizeak 100 urtetik gora zituen ezkiei bota zuen. Antzerik gerta ez dadin bertan dauden gainontzekoei ere adarrak moztu dizkiete garabi baten bitartez.

INDUSTRI PABILIOI HORNITUA

SALGAI

Aretxabaletako industrialdean

Interesatuok dei

943 79 86 17

telefonora

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan


Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



Hirusta

Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Martín

RESTAURANTE

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Mitartegorai
Jatetxea



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51

OSKAR GARAIEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

Futbito txapelketa antolatu dute otsailetik aurrera jokatzeko

MIRARI ALTUBE

Otsailaren 16an hasiko da Aretxabaletako futbito txapelketa. Azken urteetan gertatu ohi den legez, herriko eta inguruetako hainbat koadrilak emango du izena bertan parte hartzeko. Arlutz taberna osteko kantxa, aurten ere, ikusle eta zalez beteko da.

Futbitozaileak entrenatzen hasi beharrean daude, otsailaren 16an futbito txapelketa hasiko baita herrian. Jokalari eta ikusle ugari erakartzen ditu futbitoak Arlutz taberna osteko kantxara urtero, eta aurten ere antzera gertatuko da.

URTETIK URTERA INДАР HANDIAGOA

Orain urte batzuk hasi zen Arlutz taberna futbito txapelketa antolatzen, taberna ostean zeukan zabal unea aprobetxatuta. Geroztik urtero antolatu dute, eta aurten ere Arlutz tabernako arduradunak dabilta antolatzaile lanetan. Herriko taldeez gain, Arrasate eta Eskoriatzako koadrilak ere etorriko dira txapelketa jokatzera.

Urtetik urtera txapelketa gero eta indar handiagoa hartzen ari zela ikusita, kantxa konpontzea eskatu zen 1999an. Orain bi urte, erretxinazko zorua jarri zioten kantxari, busti ostean ez zedin labainkorra izan, eta ondoren margotu egin zuten.

FUTBITOKO ARAUAK

Parte hartu gura duten koadrilak otsailaren 2a baino lehen eman



ARTXIBOA

Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, Arlutz osteko kantxa ikusle beteko da

Parte hartu gura duten koadrilak otsailaren 2a baino lehen eman beharko dute izena

beharko dute izena Arlutz tabernan. Izena ematearekin batera 70 euro utzi behar dira. Antolatzaileek

leek argi utzi gura dute, ez direla egingo gerta daitezkeen istripu edo kalteen erantzule. Talde bakoitzak gainera, arduraduna izendatu beharko du, baita arbitro bat ere. Azken horrek, bere taldeak jokatu aurreko edo hurrengo partidua zuzendu beharko du. Partidu guztiak aste bukaeretan jokatu dituzte, eta egun berezietan ez da partidurik egongo. Otsail erdian hasi, eta uda inguru arte egongo da zerikusia Arlutz osteko kantxan.

SKIA

Murrukixo Mendizale Elkarteak eski zeharkaldia egingo du otsailaren 2an Ezkaraiko San Lorentzon

Murrukixo Mendizale Elkarteak eski zeharkaldia antolatu du otsailaren 2an, zapatuan, egiteko. Irteera San Lorentzora izango da, Ezkaraia, eta egunean bertan egingo da joan-etorria. Hori bai norberak eraman beharko du materiala. Joan gura dutenek Murrukixoko lokaletik pasatu beharko dira, lehenbailehen, izena emateko.

FUTBOLA

Entrenatzailea eta jokalaria bat kalera bidali arren, aise irabazi zuen preferenteko taldeak

Domekan, UDAk gol ugari egin zizkion Trintxerperi, lau, hain zuzen, baina kaleratuak ere izan ziren. Murgoitiori txartel hori bi erakutsi zizkion epaileak, eta egotzi egin zuen, eta Enrique Nieto entrenatzailea protesta egiteagatik bidali zuen zelaitik. Badi-rudi berriz ere golak sartzeari ekin diotela, baina hurrengo ere partidu gogorra izango da: hainbat jokalaria min hartuta daude, eta Murgoitio, zigortuta.

JOKATZEKOAK

EMAITZAK

FUTBOLA

Irun-UDA

Preferentea.

Domeka. 17:30. Irun.

UDA-Lagun Onak

Gazteen Euskal Liga.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Bergara

Debarroko Txapelketa.

Martitzena. 19:00. Iturrigorri.

FUTBOLA

UDA 4 Trintxerpe 0

Preferentea.

Zarautz 1 UDA 0

Gazteen Euskal Liga.

UDA 6 Urki 1

Bigarren mailako erregionala.

Gazteak 3 UDA 1

Bigarren mailako gazteak.

UDA 2 Zarautz 2

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 3 Lazkao 1

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Udaberri Torneoa

Aretxab. 12 Zurriola 22

Bigarren mailako kadeteak.

Aretxab. 17 Andazpe 22

Aretxab. 7 Murumendi 22

Lehenengo mailako gazteak.

Aretxab. (2) 14 Zazpitu 22

Aretxab. (1) 22 Arrasateko 19

Seniorrak.

Debarroko Txapelketa

Antzuola 22 Aretxab. 1

Kadeteak

Antzuola 16 Aretxab. 22 Sen.

ARTANO akaitegia




Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44



ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08



LURRINDEGIA OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

GUREA

taberna jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

ERRETRATUZHARRA

Baserritarrak Santa Ageda batzen

Garai baten, herriko baserritarrek eta kaletarrek ez zuten Santa Ageda eguna batera ospatzen. Baserritarrak euren aldetik ibiltzen ziren Santa Agedaren omenezko bertsoak abesten. Bezperan, baserriz baserri joaten ziren Santa Ageda batzen. Hurrengo egunean, berriz, hau da, Santa Ageda egunean, kalera jaitsi eta gauza bera egiten zuten herriko dendetan eta tabernetan. Gero, jasotako diruarekin bazkaria egiten zuten Ibarra, Burgales edo Matiku tabernan.

Beste desberdintasun bat dantza egiteko ohituraren gainekoa zen. Gaur egun moduan, orduan ere, Santa Ageda mutilek dantza egiten zuten herriko plazan. Baina baserritarrek ez zuten dantzaldi horretan parte hartzen. Santa Ageda batu eta parrandan irten bai, baina dantza egite hori kaletarrendako uzten zuten.

Argazki hau 1967. urte inguruan ateratakoa da, hortaz, mutil horiek urte hartako kintoak dira. Batzuek Santa Ageda batzen zuten lehenengo



urtea zuten, hortaz, 17 edo 18 urte zeukaten 1967an. Nagusienak, berriz, 20 bat urte inguru izango zituen. Denak Urkulu inguruko auzoetakoak ditugu, Koruetako, Larrinoko, Azatzako eta Arientzako baserrietako mutilak. Argazkia, hain zuzen ere, Azatzan ateratakoa da, Matiku taber-

na parean. Gainera, erretratuan ikus daitekeenez, orduan ez zen baserritar jantzia eramaten. Baserritarrak izanagatik, zapia eta txapela bai baina soinean trajea eramaten zuten, ez mahoizko prakak eta alkandora zuria.

Argazkian, goiko aldean, ezkerretik hasita: Anton Urkia, Eugenio

Madinabeitia *Katxo*, Pedro Altube, Juan Jesus Anduaga, Josu Arenaza, Felix Altube eta Jose Mari Muñoa.

Beheko aldean, makurtuta: Juanito Arenaza eta Jesus Atxaga.

Argazkia: Felix Altube

OLALAALDATUDIRENGAUZAK

Plazan autoek umeei utzi diete lekua

Ez dago urte askotako tartea bi argazkien artean. Hala ere, bi erretratuen arteko desberdintasuna handia da. Lehenengoa 2000. urte hasierakoa dugu. Orduan, Loramendin dagoen Gipuzkoa plaza autoak aparkatzeko lekua zen. Bi urte geroago, Udalak plaza txukuntzeko lanak egin, eta umeentzako jolasparke bihurtu zuen. Aldaketa ez zen txikia izan.



± 2000 Loramendi inguruan autoak aparkatzeko lekua egon arren, jende ugari hartu zuen autoa Gipuzkoa plazan uzteko ohitura.



2002 Nagusiek eta autoen jabeek ez dakigu, baina umeek, behintzat, pozik hartu zuten Udalak plaza honetan egindako aldaketa.

OPEL

**Sinets ezazu. Egiazta ezazu.
 Corsa da,
 baina ez duzu ezagutzen.**



GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 25a / 65. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABALETÀ • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Eskoriatza Kirol Elkarteko taldeak inoiz baino indartsuago dabilta

AINTZANE GARDOKI

Nesken saskibaloia taldeak eta futbito bi taldeak inoiz baino emaitza hobekak lortzen ari dira. Hirurak, nor bere ligan, goiko postuetan daude. Manolo Muñoz presidentearen arabera, elkartearen momentu gozoenak bizi izaten ari da denboraldi honetan.

Manolo Muñoz Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea 24 urte daramatza karguan, eta aurten go denboraldian "bizi izan ditudan guztien artean une gozoenak pasatzen ari naiz", azaldu digu. Nesken saskibaloian hiru talde daude: juniorrak, kadeteak eta seniorrak. "Zein baino zein maila hobea ematen ari da. Senior mailan helburua da lehenengo postuari eutsi eta Estatuko bigarren mailan sartzea. Lanean jarraituz, lortuko dugun esperantza daukat. Gaztetxoak ere ondo dabilta, maila ona erakusten ari dira", dio Muñozek.

FUTBITO, GORENEAN

Futbito bi taldeak ere ondo dabilta, denboraldiak aurrera egin ahala. "Ohorezko Ligan lehenengo postuan gaude. Hamasei taldeetatik bat bakarrik igoko da Euskal Ligara. Zaila da, baina hori ere bultzatuko dugu", adierazi du presidentea. Futbito bes-



AMAGIOIA LASAGABASTER

Eskoriatzako futbito taldea, Ohorezko Ligan, goiko postuetan dago.

te taldeak, berriz, Arabako Liga Probintzian jokatu du, eta saikapeneko erdialdean dago. "Oso jokalaririk onak ditugu, eta goiko taldean jokatzeko jokalaririk

indartzen ari gara". Muñozek dio, bestalde, elkartearen oso giro ona dutela, orokorrean, eta horrek berorrek ere eragiten duela taldeek lortzen dituzten emaitzetan.



MIRARI

Saskibaloian, gaztetxoek etxean jokatu zuten joan den asteburuan.

Bihar, futbito lehen maila eta Gasteizen jokatu dute. Biharrean mailakoek bihar, 18:00etan etxean. Neskek, gazteek, Zarautzen, eta besteek Donostian.

HERRITARREN HITZA / Kepa Larrea

Prebentzioa

Prebentzio hitzak esanahi bakarra izan arren, interpretatzeko era ugari dago. Lan arriskuen prebentzioaren legegaren ondorioz, lan munduan aurrerapauso anitz ari dira ematen, nahiz eta gauza askok kilikan jarraitzen duten. Horren harira, beti etorri zaizkigu gogora lan istripuetan hil diren langileak, segurtasun mailan gauza asko baitago oraindik egiteko. Baina, lan arriskuen prebentzioaren barne, beste esparru bat jorraztear dago: langileak lanaren ondorioz jasaten dituen lesioak. Lesioek ez diote langileari bizitza galarazten,

baina, aldiz, norberaren bizi kalitatean izugarriko eragina du, eta horrek, era berean, lantokian, familia giroan baita norberaren osasun-ean ere.

Lan arriskuen prebentzioa lanak eragin dezakeen arriskuen gutxitzean eta deuseztatzean oinarritzen da, eta langileei informazioa, kontsulta, partaidetza eta formakuntza emanaz lortuko da. Lesioak ekiditeko ezinbestekoa da ergonomiari buruzko



"Prebentzioa da arazoak ekiditeko aukera bakarra"

aspektuak lantzea, eta lehen pausoa lanpostua bada, formazioa berarekin bat doa. Formazio hori era proaktiboa landu behar da, eta ez era erreaktiboa. Azkenean norberaren baliabide psikofisikoak hobetzen saiatuko den formazioa da helburua, eta, bide batez, bakoitzaren

lan inguruan eta eguneroko bizitzan sortzen diren arrisku faktoreei aurre egitea. Prebentzioaren kudeaketa ona izatea

da gaur egun lan istripuak eta bestelako lan arazoak ekiditeko enpresek duten aukera on eta bakarra. Prebentzioak lan munduan du oihartzunik nabarmenena, baina, zergatik ez hezi gure gazteria lan arriskuen prebentzioan, lan munduan murgildu aurretik? Prebentzio formazioa gizakia- ren etapa bakoitzera egokitu beharko litzateke.

Nork bultzatuko du indarrez prebentzioa, lanean ari den pertsonak edo formazio hori gatzetatik jaso duenak? Argi dago etorkizuneko langile berri horiek izango dutela arazo horiei aurre egiteko giltza.

LABUR

Sua hartu zuen Leteko etxe bateko tximiniak

Astearte arratsaldean Lete auzoan oraintsu egin behar den etxe bateko tximiniak su hartu zuen. Etxekoak barru zeudela hartu omen zuen sukebideak.

Arratsaldeko bostak inguruan hasi zen sua, Eskoriatzako udaltzainak azaldu digunez. Ertzaintza eta su-tzaileei abisua eman behar zaien ere, hauek heldu aurretik etxeok lortu zuten su-itxaltzea. Tximinia gainberatu zuten eta arazorik ez zela azaldu zuten suhiltzaileak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal Bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultur Etxea	943 71 46 88
Gizarte-Laguntzailea	943 71 31 36
Kiroletxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo-Eskola	943 71 54 53
Axtroki?	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxia	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

HAMABOSTALDI KULTURALA L.E. ESKOLAN

Lehen Hezkuntzako ikasle-entzako hainbat ekintza antolatu du; tailerrak, mahai jokoak, idazleen hitzaldiak eta ipuin kontaketak, besteak beste.

"IKURRINA LEGEZTATU ZENENKO 25. URTEURRENA" ARGAZKI ERAKUSKETA

Otsailaren 1, 2 eta 3an, Kultur Etxean. Ordutegia: 18:30/20:30

AMUSKAREN IKASTAROAK

Pintura, boliloak, esku lanak... Izena emateko, 29an eta 30ean, Kultur Etxean, 18:00etik 19:00etara.

AXTROKIRENAGENDA

EGOITZA ZAHARRETIK BERRIRA

Aspaldi egin bazen ere egoitza berrirako aldaketa, joan den astean ekarri dituzte zituzten gauza guztiak Intxaurtxueta. Beraz, dagoeneko egoitza bakarra du jada elkarteak.

Herrian gorazarre egin zioten San Sebastiani

AINTZANE GARDOKI

Donostian ez ezik, ibarreko txoko askotan ederki astindu dituzte danborrak. Horren lekuko, Luis Ezeiza eskolako ikasleek eskaini zuten danborrada.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako, hau da 2 urtetik 12 urtera bitarteko 128 ume elkartu ziren danborrada jotzeko.

Duela 12 urte hasi ziren San Sebastian eguneko danborrada egiten Ezeiza eskolan. Aurten, gainera, jantzi berriak ere estreinatu dituzte ikasleek. Orain arteko paperezko jantziak alde batera utzi, eta plastikozkoak, doto-

"Luis Ezeiza eskolako 128 gaztetxok gorazarre egin zioten San Sebastiani"

reak gainera, egin dituzte artistika orduetan. Jende ugari izan zen danborradan, eta txalo zaparrada ederra eskaini zieten danborrari gazteei.



Hiru konpainiak osatu zuten danborrada.

AINTZANE GARDOKI



NIKAZETARI/ Lore Díaz de Gereñuk egindako elkarrizketa

KARMEN PAGALDAI/

"Dendarik gabe herriak ez du bizitzarik"



Eskoriatzako denda zaharrenetarikoa izango da *Polleruena*, betiko denden xarma gordetzen duen horietakoa. Karmenek dio bizimodua aurrera ateratzeko denetik saldu duela.

Noiz zabaldu zenuten denda?

Gurasoek zabaldu zuten, 1945ean. Aitak oilasko granja bat zuen Bolibarko Olagoiti baserrian, eta eguenetan Gasteizera joaten zen oilaskoak saltzera, hortik gure ezizena.

Eta oilaskoak saltzetik denda jartzera?

Behin, bidaiari merkexeari ateratzeko otzara bat sagar saltzeko eraman zuen, hurrengoan sagarrak eta intxaurrak, gero, frutak eta barazkiak. Legunbreak saltzen zizkidanak galtzak ere saltzen zituen... Hala, arropak saltzen hasi ginen. **Atari ondoko leihoan hasi zineten?** 1952an, erakusleihoa zabaldu genuen, eta aurten lanak egin arte horrela egon da. Duela gutxi unibertsitateko ikasle bat sartu zen eta txundituta gelditu zen,

dendak museoa zirudiela zioen, egungo dendak ez duten berotasuna gordetzen zuela.

Bezeroak aldatu dira? Zertan?

Gazteak zorrotzagoak dira, umeen arropekin batez ere. Baina orokorrean ez da askorik aldatu. Beti sentitu naiz gustura bezeroekin, oso gustuko dut harreman hori.

Eta erosteko modua aldatu da?

Hori bai aldatu da. Orain jendea kanpora joaten da erosketak egitera. Horrela jarraituz gero, dendarik gabe geldituko da herria eta bizitza galduko du.

Zein da denda txikien etorkizuna?

Zaindu egin behar dira denda txikiak, eta hori herritarren laguntza barik ezinezkoa da.

Denda, lana baino zerbait gehiago da?

Lana eta zaletasuna da, baina bat gehiago bakarrik, pintura ikastaroa ere oso gogoko dut-eta. Gaztetatik bordatu ere egin dut. Makinatxo bat arreo egin ditut. Hori ere jada galtzen ari da. Pena da!

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16 Eskoriatza. 943 71 46 71

Villar Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9 Tel.: 943 71 50 42 ESKORIATZA



Danbor soinuak izan dira nagusi

Han eta hemen. Donostian, Eskoriatzan baita Gatzagan ere entzun dira San Sebastian eguneko danbor doinuak.

Herri eskolako umeak, goizean prestaketa lanak egin ondoren, herrian bertan ibili ziren, indartsu, euren danborrekin. Arratsaldean, berriz, Eskoriatzara jaitsi ziren, hango lagunekin danborradan parte hartzeko. Guztira, Eskoriatzako beste 120 lagunekin batera parte hartu zuten San Sebastiani eskaini zioten danborradan.

LABUR

Unai eta Beloki dira indartsuenak pilota txapelketan

Pasa den asteburuan bi partidatu jokatu ziren pilotak kuan. Artabilla eta Jonex eta 11 irabazi zioten Txustei Patasi. Sasiainek eta Haritzek ere 22 eta 13 irabazi zioten Joxerra eta Salvari.

Asteburu honetan azkenengo partidua jokatu dira. Aste bete atsedean hartu eta gero, finalak jokatu dituzte. Unai eta Beloki eman dute orain arte mailarik onena.

HURRETIK/ J.M. Makazaga "Pequeño". Alguazil ohia

"Ni etorri nintzenetik hona herria asko aldatu den dudarik ez dago, baina orain ezin gara lokartu, bestela..."

Juan Mari Makazaga Pequeño aretxabaletarra da izatez, baina 25 urte daramatza Gatzagan. Hark egin ditu, oraintsu arte, udaltzain lanak herrian. Gaur egun, batek baino gehiagok sumatzen du faltan Pequeño eskaintzen zuen 24 orduko zerbitzua.

Udaltzain lanaz baino zerbait gehiagoz arduratu zara, ezta? Kooperatiban errelebutan nabilela-eta, ordu libreetan Udalerako uraren eta argiaren kontadoreak irakurtzen hasi nintzen. Poliki-poliki ardura gehiago hartu ditut, eta ia

denetarik egin behar izan dut urtetan.

Gatzagako sukalde gehienak ezagutzen dituzun dudarik ez dago.

Izan ere, makinatxo bat garbigailu konpondu behar izan ditut... edo zenbat eta zenbat fusible aldatu ditudan... Gaueko hamabietan ere tokatu izan zait, Otxoarekin batera, mendira joatea, jatetxe batek ur arazoak zituela-eta. Lanik gogorrenak elurra egiten zuenean izaten ziren. Premia zegoela-eta egin egiten genuen. Emazteak esaten dit erditze bat



atenditzea bakarrik falta izan zaidala curriculum osatzeko. Egun, erretiratua zaude.

Faltan sumatzen duzu herrian egiten zenuen lana?

Faltan ez, baina oraindik ere han eta hemen ikusten dira egiteko dauden gauza ugari. Nire buruari esaten diot ez dela nire ardura, baina... Dena dela, ortuak, eguneroko mus partidatxoek eta, ehiza garaian, ehizak entretenitu egiten naute, bai horixe!

Hogeita bost urte pasatu dira Aretxabaleta utzi eta Gatzagara etorri zinenetik hona.

Eta zenbat aldatu den herria ordutik hona! Heldu nintzenan, herriko etxe asko jausten ari ziren. Zorionez, buelta emateko zitaion orduko egoerari, baina orain, ezin gara lokartu.

Herriak zerbitzu minimo batzuk eskaini behar ditu; autobusa, adibidez. Bestela... Herriak egindako omenaldiak ere jaso duzu, eta edonork ere dauka bere irudia duen buruhandi bat.

Antiojoak dauzkan buruhandi bakarria izango da Pequeñoaren (Lotsatu egiten da). Baina, egiten ezan, polita izan zen.

OTZETA

TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORATZA



bedardenda

Tfnoa.: 943 71 43 27
ESKORATZA

PAGALDAI

HARATEGIA-URDAITEGIA



Gaztainadui, 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORATZA


aroztegia

Leintz

Aingeruguardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurri bereziak egiten ditugu


Lantokia eta Erakusketa: Herriko Plaza, 8
Tfnoa.-Faxa: 943 78 81 78
20560 ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elktrizitatea CB.

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88



Julio Altuna

Basabe poligonoa, A-2-3
ARETXABALET
943 79 72 55

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALET

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALET

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
Dekorativo eta
Industrial

San Pedro, 14 beheha ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gas
- Berogailuak •
- Petrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALET
686 113 581 / 943 79 65 46



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALET

943 79 64 91 / 605 71 66 92 / 629 47 72 70




Instalazioen mantenuendu osoa
Berokuntza • Gas
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilbidea, 17
*Tel.: 943 79 28 41 *Fax: 943 79 79 06
*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarriehioak@euskalnet.net

GORBEA S.L.



Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALET
Telefona eta faxa 943 79 15 71

ARETXABALET
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALET

ITURGINTZA



Jose Jabier Irure

Ura, gasa eta kalefakzioa


943 79 31 87. ARETXABALET

TDCi

Common Rail berria
130 CV



lider **naturala**

 **MUGARRI**



DEBA GARAICO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

www.mugarri.es / mugarri@mugarri.es